



DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.

***2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTUAK,
KUDEAKETA TXOSTENA ETA KONTU IKUSPAPEN
TXOSTENAREKIN BATERA***



DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.

***2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTUEN
IKUSKAPEN TXOSTENA***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.ko
akziodun bakarrari:

Iritzia

DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.ren (Sozietatea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2021eko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2021eko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 a) oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizunak, arau horien arabera, *Urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzaileraren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.



Ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2021 ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; berau egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure ikuskaritza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-ikuskaritzaren araudiaren arabera, hauex da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea, aipatutako urteko kontuen ikuskaritzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz, eta baita kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea ere. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2021 ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean.

Urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.



Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun-maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, banaka edo batuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatu eta aplikatu ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzagatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.



Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea)

José Ignacio Miguel Salvador
(ROACean 11.305 zenbakiz inskribatuta)

2022ko martxoaren 30an



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIÁN



donostiasustapena
fomento**sansebastián**

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A.

***2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTUAK
KUDEAKETA TXOSTENAREKIN BATERA***

FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A.
2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31KO EGOERA BALANTZEAK (EUROAK)

AKTIBOA	NOTAK	2021	2020
A. AKTIBO EZ KORRONTEA		22.001.723	23.192.829
I. Ibilgelu uklezina	5	7.278	44.447
5. Aplikazio informatikoak	5	7.278	44.447
II. Ibilgelu materiala	6	3.294.425	3.613.170
1. Lurrak eta eraikuntzak	6	1.821.803	1.933.496
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgelu materiala	6	1.452.656	1.665.708
3. Egite-bideko ibilgelua eta aurrerakinak	6	19.966	13.966
III. Ondasun higiezinako inbertsioak	7	18.692.239	19.521.486
1. Lurrak	7	18.692.239	19.521.486
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak		7.781	13.726
1. Ondare-tresnak		481	481
2. Hirugarrenetik hartzeak		7.300	13.245
B. AKTIBO KORRONTEA		8.506.820	6.146.011
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	8	7.395.570	5.215.161
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik	8	846	846
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkarluak	8	3.953.708	3.111.896
3. Hainbat zordun	8	3.441.016	2.043.243
6. Administrazio Publikoekiko bestelako jartzeak	8	-	59.176
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioak	9	1.111.250	930.850
1. Diruzaintza	9	1.111.250	930.850
AKTIBOA GUZTIRA		30.508.543	29.338.840
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	NOTA	2021	2020
A. ONDARE GARBIA		18.559.561	18.943.306
A.1 Funtz propioak	12	13.023.013	13.023.013
I. Kapitala	11	9.604.699	9.604.699
1. Kapital eskrituratua	11	9.604.699	9.604.699
II. Jaulkipen-prima		10.784	10.784
III. Erreserbak		3.406.506	3.406.506
1. Lege eta estatutu-erreserbak	11	297.848	297.848
2. Bestelako erreserbak	11	3.108.658	3.108.658
V. Aurreko ekitaldialako emaitzak		1.024	1.024
1. Gaineratutakoa		1.024	1.024
VI. Bazkideen bestelako ekarpenak		8.819.947	8.382.920
VII. Ekitaldiko emaitza	3	(8.819.947)	(8.382.920)
A. 3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legaluak	13	5.536.548	5.920.293
B. PASIBO EZ-KORRONTEA		1.776.558	1.232.479
II. Epe luzeako zorrak		522.830	516.677
5. Bestelako pasibo finantzarioak		522.830	516.677
V. Epe luzeko periodifikatzeak	10	1.253.728	715.802
C. PASIBO KORRONTEA		10.172.424	9.163.055
III. Epe laburreko zorrak		376.811	375.741
5. Bestelako pasibo finantzarioak		376.811	375.741
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	10	8.805.878	7.791.250
3. Hainbat hartzekodun	10	5.909.828	4.273.045
4. Pertsonala (ordaintzeko dauden lantzerak)	10	13.018	13.274
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	13	301.765	210.464
7. Bezeroek emandako aurrerakinak	10	2.581.267	3.294.467
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	10	989.735	996.064
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		30.508.543	29.338.840

Donostian, 2022ko martxoaren 29an

Erantsitako memorian jasotako 1-21 oharak 2021eko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOZKION GALDU-IRABAZIEN KONTUAK
(Euroak)

	NOTAK	2021	2020
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Negozio zifraren zenbateko garbia		4.476.280	3.243.847
b) Zerbitzu-emateak		4.476.280	3.243.847
4. Hornikuntzak		(4.094.059)	(2.394.561)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak		(4.094.059)	(2.394.561)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak		5.064.209	3.233.174
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa aruntako beste batzuk		536.402	429.701
b) Ekitaldioko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak		4.527.807	2.803.473
6. Personal-gastuak		(3.122.555)	(3.051.621)
a) Soldadak, lantziak eta antzekoak	15 c)	(2.400.120)	(2.324.267)
b) Karga sozialak	15 c)	(722.435)	(727.354)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak		(10.301.657)	(8.571.870)
a) Kanpoko zerbitzuak		(9.942.109)	(8.390.710)
b) Tributuak		(359.548)	(181.160)
8. Ibilgaitzaren amortizazioa	5, 6 y 7	(1.224.983)	(1.227.645)
9. Ibilgaitz ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	12	383.745	386.595
A.1) USTIAPENEKO EMAITZA		(8.819.020)	(8.382.081)
13. Gastu finantzarioak		(927)	(839)
b) Hirugarrenen zorrak		(927)	(839)
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA		(927)	(839)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA		(8.819.947)	(8.382.920)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA		(8.819.947)	(8.382.920)
A.5) EKITALDIKO EMAITZA		(8.819.947)	(8.382.920)

Donostia, 2022ko martxoaren 29an

Erantsitako memorian jasotako 1-21 oharrek galdu-irabazien kontuaren zati dira 2021eko abenduaren 31n.

FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A.
2021 EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN
EGOERA-ORRIA (Euroak)

A) 2021 EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAN KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA

	NOTAK	2021	2020
A) Galdututako kontuaren emaitzak		(8.819.947)	(8.382.920)
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak		-	-
III. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	-	73.780
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak guztira		-	73.780
Galdututako kontura egindako transferentziak		-	-
VIII. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	(383.745)	(386.595)
C) Galdututako kontura egindako transferentziak guztira		(383.745)	(386.595)
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA		(9.203.692)	(8.695.735)

B) 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA

	Kapital Eskrituraturua	Jaulkipen prima	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Bazkideen bestelako ekarpenak	Ekitaldietako emaitza	Hartutako diru- laguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2019KO URTE-AMAIERAKO SALDOA	9.604.699	10.784	3.406.506	1.024	6.890.249	(6.890.249)	6.233.108	19.256.121
B) 2020KO URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	9.604.699	10.784	3.406.506	1.024	6.890.249	(6.890.249)	6.233.108	19.256.121
I. Sarrera eta gastu kontabilitzatuak guztira	-	-	-	-	-	(8.382.920)	(312.815)	(8.695.735)
II. Bazkide edo jabeekiko eragiketak	-	-	-	-	8.382.920	-	-	8.382.920
7. Bazkide edo jabeekiko bestelako eragiketak	-	-	-	-	(6.890.249)	6.890.249	-	-
III. Ondare garbiren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-
C) 2020KO URTE-AMAIERAKO SALDOA	9.604.699	10.784	3.406.506	1.024	8.382.920	(8.382.920)	5.920.293	18.943.306
D) 2021EKO URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	9.604.699	10.784	3.406.506	1.024	8.382.920	(8.382.920)	5.920.293	18.943.306
I. Sarrera eta gastu kontabilitzatuak guztira	-	-	-	-	-	(8.819.947)	(383.745)	(9.203.692)
II. Bazkide edo jabeekiko eragiketak	-	-	-	-	-	-	-	8.819.947
7. Bazkide edo jabeekiko bestelako eragiketak	-	-	-	-	8.819.947	-	-	-
III. Ondare garbiren bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	(8.382.920)	8.382.920	-	-
E) 2021EKO URTE-AMAIERAKO SALDOA	9.604.699	10.784	3.406.506	1.024	8.819.947	(8.819.947)	5.536.548	18.559.561

Donostia, 2022ko martxoaren 29'an

FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA
(Euroak)

	NOTAK	2021	2020
A) USTIAPEAN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
1. Ekitaldiko zerga aurreko emaitza		(8.819.947)	(8.382.920)
2. Emaitzaren doikuntzak		842.165	841.889
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)	5, 6 y 7	1.224.983	1.227.645
d) Diru-laguntzen egozpena (-)	12	(383.745)	(386.595)
h) Gastu finantzarioak (+)		927	839
3. Kapital korrontearen aldaketak		(634.184)	(710.333)
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak (+/-)	8	(2.180.409)	2.879.255
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak (+/-)	10	1.014.628	(3.014.933)
e) Bestelako pasibo korronteak (+/-)	10	531.597	(574.655)
4. Ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuak		(927)	(839)
a) Interesen ordainketa (-)		(927)	(839)
5. Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak		(8.612.893)	(8.252.203)
B) INBERTSIO-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
6. Inbertsioen ordainketak (-)		(33.877)	(61.576)
c) Ibilgetu materiala	6	(39.822)	(62.946)
d) Ondasun higiezinak inbertsioak	7	-	-
e) Bestelako aktibo finantzarioak		5.945	1.370
8. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak		(33.877)	(61.576)
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK			
9. Ondare-fresnen kobrantzak eta ordainketak		8.819.947	8.456.700
e) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (+)	12	8.819.947	8.456.700
10. Pasibo finantzarioko fresnen kobrantzak eta ordainketak		7.223	(42.385)
a) Jaulkipena			
4. Bestelako zorrak (+)		6.153	(43.385)
b) Itzulketak eta amortizazioak			
4. Bestelako zorrak (-)		1.070	1.000
12. Finantzaketa-jardueretako diru-fluxuak		8.827.170	8.414.315
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/GUTXITZE GARBIA		180.400	100.536
Ekitaldia edo balioakideak ekitaldi-hasieran		930.850	830.314
Ekitaldia edo balioakideak ekitaldi-amaieran		1.111.250	930.850

Donostian, 2022ko martxoaren 29an

Erantsitako memorian jasotako 1-21 oharrek 2021eko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

DONOSTIAKO SUSTAPENA SA

2021KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

(1) Elkartearen jarduera

DONOSTIAKO SUSTAPENA, SA sozietatea 1902. urteko martxoaren 17an sortu zen, Donostiako hiriarentzat edo Udalarentzat interesgarriak ziren ekimen guztiak errazteko helburu sozial garrantzitsuenarekin.

Helburu hori aintzat hartuta, Elkarateak ekimen ezberdinak bultzatu zituen, eta, egun, jarduera hauek egiten jarraitzen du.

▪ María Cristina hotela

1988. urteko abenduaren 23an, sozietateak kontratua sinatu zuen CIGAHOTELS ESPAÑA, SAREkin, eta, kontratu horren bidez, enpresa horri eman zitzaion Maria Cristina hotelaren eraikuntzaren eta hango barneko guztiaren usufruktua izateko eskubide erreala, 30 urterako, 1989. urteko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita. Usufruktua amaitzen denean, Maria Cristina hoteleko negozioa eta hango barneko guztia errentamendu-kontratuan emango da, 20 urterako, 2019. urteko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita.

▪ Aranzazu-Donostia hotela

1991. urteko otsailaren 18an, DONOSTIAKO SUSTAPENA, SA sozietateak eta ARANZAZU-DONOSTIA SAK lurrazal-eskubidearen kontratua sinatu zuten; hau da, sozietateak Ondarretan duen partzelarena, hotela bezala erabiltzeko dena, 50 urtez, aipatutako lurrazal-eskubidea eratzeko eskritura emandako egunetik kontatzen hasita. Hotela ARANZAZU-DONOSTIA, SAK eraiki zuen, eta, lurrazal-eskubidea amaitu eta gero, Sozietateari itzuli beharko zaio.

Gaur egun, Sozietatearen helburua da hiriko ekonomia eta gizartea sustatzea eta garatzea, eta, horretarako, aintzat hartzen ditu berrikuntza, ezagutza sortzea eta transformatzea, sare-lana eta proiektu estrategikoak bultzatzea eta kudeatzea. Hori guztia aurrera eramateko antolakuntza kohesionatua du, ekimen estrategikoen eta ekonomikoki jasangarriak diren proiektuen bidez lan egiten duena, sortutako ezagutza kapitalizatzeko eta transferitzeko.

Era horretan, Elkartearen xedea da hiriko eredu sozio-ekonomikoaren eta enpresa-ehunaren aldaketa ekarriko duen elementua izatea, sektore emergenteen garapena bultzatuaz eta tokiko klusterizazio eredua finkatuaz.

Ildo horretan, Elkartearen helburua da erraztea eta sustatzea zentro teknologikoen eta ikerketa-zentroen inplikazioa nahiz ezagutzaren sorreran, berrikuntza produktiboaren prozesuan, giltzarri gisa identifikatzen diren agente guztiena.

Donostiako Udala kenduta, akzioen %100aren jabea baita, Erakundeak ez du beste inolako Sozietatetan parte hartzen, eta ez du inolako erlaziorik talde-erlazioa edo elkartua ezar daitekeen beste erakundeekin, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan eta Kontabilitateko Plan Orokorra onartutako 1514/2007 Errege Dekretuaren 13. eta 15. Arauetan ezarritako baldintzen arabera.

Enpresak erabiltzen duen moneta funtzionala euroa da.

(2) Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi zehatza-

2021ko ekitaldiko Urteko Kontuak, hemen gehituak, Administrazio Kontseiluak egin ditu Sozietateak 2021ko abenduaren 31n zituen kontabilitate-erregistroak kontuan hartuta, eta horietan aplikatu dira honako hauetan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak: 1514/2007 Errege Dekretua, Kontabilitateko Plan Orokorra onartzen duena, eta horren gainean aplikatutako aldaketak 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez, eta kontabilitate-arloan indarrean diren gainerako legezko xedapenak. Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zehatza erakusten dute eta efektibo-fluxuen egoeran sartutako fluxuen egiazkotasuna.

Ez dago salbuespeneko arrazoirik, irudi zehatza erakusteko, kontabilitate-arloan legezko xedapenak ez direla aplikatu justifikatzeko.

2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Sozietatearen Batzar Orokor Unibertsalak onartu zituen 2021eko maiatzaren 27an.

2021ko ekitaldiko urteko kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak oraindik onartzeko badaude ere, Sozietateko administratzaileek ez dute uste gehiegi aldatuko direnik onartu ondoren.

donostia sustapena fomento sansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

b) 2021eko Kontuen Plangintza Orokorren aldatetaren lehenengo aplikazioaren ondorioak

2021 urteko ekitaldian, kontabilitate-arau berriak sartu dira indarrean, zeinak kontuan izan baitira urteko kontu hauek egiteko orduan, eta ez dute kontabilitate politiken aldatetarik sozietatearentzat.

Hona hemen 2021eko urtarrilaren 1an hasitako ekitaldian nahitaez aplikatu beharreko eta 2007ko Kontuen Plangintza Orokorreko kontabilitate-arauetan egindako aldatetek lehenengo aplikazioan sortutako ondorio nagusiak:

9. araua Finantza-tresnak eta kontabilitate-estaldurak

Irizpide berrien ondorioz, ez da ondorio nabarmenik izan finantza-tresnen sailkapen eta balorazioan, ez eta ondare garbian ere:

- 2021eko urtarrilaren 1ean, finantza-aktibo eta -pasibo mota bakoitza bateratzea, non hasierako balorazioaren kategoria eta zenbateko kontable zehatza jasotzen baita aurreko araudiaren arabera, eta balorazio-kategoria berria eta zenbateko kontable zehatza, irizpide berrien arabera:

Epe luzeko finantza-aktiboak

Birklasifikatua:	Saldoak 2021eko urtarrilaren 1ean	Birklasifikatua: Kostu amortizatuko aktiboak
Kobratu beharreko maileguak eta partidak	13.726	13.726

Epe laburreko finantza-aktiboak

Birklasifikatua:	Saldoak 2021eko urtarrilaren 1ean	Birklasifikatua: Kostu amortizatuko aktiboak
Kobratu beharreko maileguak eta partidak	5.155.985	5.155.985

Epe luzeko finantza-pasiboak

Birklasifikatua:	Saldoak 2021eko urtarrilaren 1ean	Birklasifikatua:
		Kostu amortizatuko aktiboak
Zorrak eta ordaindu beharreko partidak	516.677	516.677

Epe laburreko finantza-pasiboak

Birklasifikatua:	Saldoak 2021eko urtarrilaren 1ean	Birklasifikatua:
		Kostu amortizatuko aktiboak
Zorrak eta ordaindu beharreko partidak	7.956.527	7.956.527

- Lehenengo aplikazioa atzeraeraginez egin da, eta informazio konparatiboa berriro ez adieraztea erabaki du Sozietateak..

14. araua Salmenten eta zerbitzu-prestazioen bidezko sarrerak

4.f) oharrean aipatzen den moduan, bezeroari ondasun edo zerbitzu baten kontrola ematean bezeroak jasotzea espero duen zenbatekoaren arabera aitortzen dira sarrera arruntak. Kontrol-transferentzia hori une jakin batean edo denboran zehar eman daiteke. Kontratu berean bezeroarenganako betebeharrak bat baino gehiago dagoenean, obligazio bakoitzari dagokion salmenta-prezio independentearen arabera aitortuko da sarrera. Horretarako, bost pausotan oinarritzen den aitortza-ikuspegi bat jasotzen da.

Sozietateak aitortzen dituen sarrerak, nagusiki, “La Perla del Océano” izeneko bainuetxea ustiatuz egiten duen jardueraren ondorio dira. Zuzendaritzaren ustez, arau horrek ez du eraginik Sozietatearen emaitzetan, bezeroekin egiten diren eta normalki kontratuzko betebeharrak bat duten kontratuen kasuan. Hortaz, irizpide berri horien lehenengo aplikazioak ez du eraginik izan finantza-egoeren partidetan, aurreko ekitaldia ixtean aplikagarria zen arauarekin alderatuta.

c) Kontabilitate-printzipioak-

2021eko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aplikagarria den finantza informazioaren araudi esparrua jarraitu da, eta, bereziki, 4. Oharrean azalduriko erregistro eta balorazio arauak jarraitu dira. Administrazioaileek kontu hauek egin dituzte derrigorrez aplikagarriak diren eta urteko kontu horietan ondorio esanguratsua duten kontabilitateko printzipio eta arau guztiak kontuan izanik. Derrigorrezkoa den kontabilitateko printzipiorik ez da geratu aplikatu gabe urteko kontu hauek egitean. Era berean, ez da aplikatu derrigorrezkoa ez den kontabilitateko printzipiorik.

d) Informazioa konparatzea-

Urteko kontuek, 2021eko ekitaldiko zenbakiez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak aurkezten dituzte, konparatu ahal izateko, balantzeko partida bakoitzarekin, galera eta irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketa egoerako eta eskudiru fluxuen egoerako partida bakoitzarekin. Era berean, 2021eko ekitaldiari dagokion memoria honetan dagoen informazioa 2020ko informazioarekin aurkezten da, konparatzeko helburuarekin.

2021eko eta 2020ko ekitaldien arteko konparaketa egiteko, 2.b Oharrean azaldutako egoera hartu behar da kontuan.

e) Balorazioaren eta zalantzaren balioespenaren alderdi kritikoak eta iritzi garrantzitsuak kontabilitate-politikak aplikatzerakoan-

Sozietateak, 2021ko ekitaldiko urteko kontuak egitean, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa hartu du aintzat. Kontuan izan ditu 2020ko ekitaldiko egoera eta COVID-19ren egungo egoera, bai eta orokorrean ekonomian eta bereziki enpresan izan ditzakeen ondorioak ere, eta ez dago jarduerarekin jarraitzeko arriskurik.

Urteko kontuak prestatzeko, beharrezkoa da administrazioaileek zenbatespen, judizio eta hipotesi garrantzitsuak egitea, hautatutako kontabilitate politikei eta haiei lotutako aktiboen, pasiboen, diru sarreraren, gastuen eta xehakapenen zenbatekoei eragin diezaieketenak, besteak beste, esperientzia historikoan oinarrituta, edo arrazoizkotzat jotako beste egitate batzuetan, itxiera datako inguruabarrak kontuan hartuta.

Berehala zehaztu ezineko zenbatekoa duten urteko kontuetako elementuei esleitutako kontabilitate balioa zenbatespen, judizio eta hipotesi horien emaitza da, eta honako hauei egiten die erreferentzia, batik bat:

- Aktibo material eta immaterialen bizitza erabilgarria.

- Kobratu beharreko kontuen eta aktibo finantzarioen saldoen narriadura.
- Diru sarreren aitortpena.

Zenbatespen, judizio eta hipotesi horiek etengabe ebaluatzen diren arren, egiazko emaitzak bestelakoak izan daitezke. Gainera, sozietatearen administratzaileek ekitaldia ixtean zuten informazio onenarekin egin bazituzten ere, merkatuaren inguruan duten jakintza guztia aplikatuz, posible da etorkizuneko gertakarien ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea. Indarrean dagoen legediari jarraituz, zenbatespen aldaketen ondorioak etorkizunean aitortuko dira, irabazi eta galeren etorkizuneko kontuetan.

f) Partidak multzokatzea-

Urteko kontuek ez dute multzokatu den partidarik balantzean, galeren eta irabazien kontuan, ondare garbian izandako aldaketen egoeran edo efektibo-fluxuen egoeran.

g) Hainbat partidatan bildutako elementuak-

Ez dago balantzearen bi partida edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

h) Aldaketak kontabilitate-irizpideetan-

2021eko ekitaldian zehar, ez da kontabilitate-irizpideetan aldaketa esanguratsurik gertatu, aurreko ekitaldian aplikaturiko irizpideekin alderatuta.

i) Akatsak zuzentzea-

2021eko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian izandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

j) Garrantzi erlatiboa-

Finantza-egoeren edo bestelako gaien partida ezberdinen inguruan memoria honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, Elkarteak, Kontabilitateko Plan Orokorreko Esparru Kontzeptualaren arabera, kontuan izan du garrantzi erlatiboa 2021ko ekitaldiko urteko kontuei dagokienean.

(3) Emaitzak aplikatzea

Hona hemen Administrazioaileek Akziodunen Batzar Nagusiari onartzeko proposatutako dioten 2021eko ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena:

-Eurotan-		
Kontzeptua	2021	2020
Ekitaldiko emaitza, erantsitako galera Eta irabazien kontuaren arabera	(8.819.947)	(8.382.920)
Honela bana daiteke: Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(8.819.947)	(8.382.920)

(4) Erregistro- eta balorazio-arauak

Sozietateak, indarrean dagoen legediaren arabera, 2021eko abenduaren 31n urteko kontuak egiteko ondorengo balorazio-arau nagusiak hartu ditu kontuan:

a) Ibilgetu ukiezina-

Informatikako aplikazioak erosketa kostuko prezioan baloratzen dira, amortizazio metatua eta balio narriadurak sortutako edozein galera aitortu kenduta, eta linealki amortizatzen dira 5 urteko denboraldi batean.

b) Ibilgetu materiala-

Ibilgetu materiala eskuratze-kostuarekin baloratzen da, pilatutako amortizazioaren garbia eta okerragotzeagatik izandako galerak kontuan hartuta, eta ibilgetu horren kostu gordina 12/1973 Dekretu-Legean eta 13/1990 eta 11/1996 Foru Arauetan ezarritakoaren arabera eguneratzen da ((5. eta 9. Oharrak). Elementu bakoitza erosterakoan ordaindutako prezioaren gehigarri gisa, kostuan sartuko lirateke baita ere eraikuntza-denboraldian sortutako finantza-gastuak, erosketari edo aktiboaren egiteari zuzenean eranstekoak, betiere, erabiltze moduan egoteko urte bat baino gehiago behar dutenean. Ekitaldian zehar, ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu hori medio

Elementu osoen ordezkapenak edo berritzeak, handitzeko, modernizatzeko edo hobetzeko kostuak, ondasunaren balio-bizitza gehitzen dutenak, produktibitatea edo gaitasun ekonomikoa ibilgetu materialaren zenbatekorik handiena moduan kontabilizatzen dira, ordezkaturako edo berritutako elementuen kontabilitatea kenduta.

Mantentze, kontserbatze eta konpontze lanen aldizkako gastuak emaitzetan sartzen dira, sortzapen-printzipioari jarraiki, gertatutako ekitaldiko kostu moduan.

Amortizazioa kalkulatzeko, metodo lineala aplikatzen da aktiboen eskuratzeko-kostuaren gainean, eta hondar-balioa kentzen zaio; eraikinak eta beste eraikuntzak dauden lursailen balio-bizitza mugagabetzat hartzen da, eta, beraz, ezin dira amortizazioan sartu.

Ibilgetu materialaren amortizazioa egiteko, metodo lineala erabili da, ondoren adierazitako elementu bakoitzaren balio-bizitzako urteetatik eratorritako urteko portzentajeak aplikatuta:

	-Urteak-
Eraikuntzak	50-25-20
Erremintak, instalazioak eta altzariak	10-8-6
Informazio-prozesuetarako ekipoak	6

Ibilgetura gehitutako elementuen amortizazioa erregistratuko da elementuak funtzionamenduan hasitako unean.

Aktiboa besterentzeagatik edo erretiratzeagatik ateratako ondasun edo galera kalkulatzeko salmentaren ondasunaren eta aktiboak kontabilitatean duen zenbatekoaren arteko alde gisa, eta emaitzen kontuan jasotzen da.

Elkarteak gutxienez ekitaldi bakoitzaren amaieran ebaluatzen du ibilgetu materialaren balioaren narriatzea bidezko galera-aztarnarik egon den, aktibo horien balio berreskuragarria kontabilitateko balioaren zenbateko baxuagora murrizten duten jakiteko. Edozein aztarna egonez gero, aktiboaren balio berreskuragarria kalkulatzeko da, balioaren narriatzea bidezko behin-behineko galera zenbaterainokoa den zehaztearen. Aktiboak beste aktibo edo aktibo-multzo batzuetatik independenteak diren efektibo-fluxurik sortzen ez badu, efektiboa sortzen duen unitatearen (aktiboa unitate horretakoa izango da) balio berreskuragarria kalkulatzeko duen Sozietateak.

Aktiboen balio berreskuragarria handiena da haren arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak eta erabilera balioaren artean. Erabilera-balioa honako hauen arabera zehazten da: espero diren etorkizuneko efektibo-fluxuak, aktiboaren erabilera sortuak; zenbatekoan izan daitezkeen aldaketei buruzko aukerak edo fluxuen aldi baterako banaketa; diruaren aldi baterako balioa; aktiboarekin loturiko zalantza izateagatik ordaindu beharreko prezioa; eta aktiboarekin zerikusia duten etorkizuneko efektibo-fluxuen balorazioan merkatuko partaideek kontuan hartuko lituzketen bestelako faktoreak.

Kalkulatutako zenbateko berreskuragarria aktiboaren liburutako balio garbia baino baxuagoa bada, narriadura bidezko dagokion galera galeren eta irabazien kontura erregistratzen da, aktiboaren liburutako balioa kenduta zenbateko berreskuragarriari.

Okerragotzea edo itzultzea medio egindako balorazio-zuzenketa onartu ondoren, hurrengo ekitaldietako amortizazioak egokitzen dira, kontabilitate-balio berria kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, aktiboen gertaera espezifikoetatik agerian geratzen bada galera itzulezin bat, hori zuzenean onartzen da galera eta irabazien kontuko ibilgetutik sortutako galeretan.

2021eko ekitaldian, Elkarteak ez du izan ibilgetu materialen okerragotze bidezko galerarik.

c) Ondasun higiezinetakako inbertsioak-

Elkarteak ondasun higiezinetakako inbertsioak bezala sailkatzen ditu aktibo ez arruntak; hots, errentak, gainbalioak edo biak jasotzeko dituen higiezinak, honako erabilera hauetarako ez direnak: ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko edo emateko edota administrazio-helburuetarako, edota eragiketen ohiko bidean saltzeko. Halaber, inbertsio hauetan sartzen dira lursailak eta eraikinak, etorkizuneko erabilerak zehaztu gabe dituztenak Elkartearen ondarean sartzeko unean.

Ondasun higiezinetakako inbertsioak baloratzeko, ibilgetu materialaren irizpideak erabiltzen dira lursail eta eraikuntzetarako. Hona hemen aipatu irizpideak:

Eraiki gabeko orubeen kasuan, eroste-prezioa gehi egokitzeko gastuak hartzen dira kontuan; hala nola, itxiturak, lurren mugimenduak, saneamendu eta drainatze obrak, eraikinak botatzekoak oinplano berriko obrak egin ahal izateko beharrezkoa denean, ikuskapen-gastuak eta planoen jasotzeak erosi aurretik egiten badira, edota orubea birgaitzeko kostuetatik eratorritako betebeharren egungo balioaren hasierako balioespena.

Eraikuntzak baloratzeko, erosteko prezioa edo produkzio-kostua hartzen da kontuan, iraunkortasun-izaera duten instalazioak eta elementuak barne, eraikuntzari datzekion tasengatik eta proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren fakultatiboen ordainsariengatik.

Bestalde, urteko kontraprestazioarekin ezarritako kanon aldakorra ekitaldi bakoitzeko diru-sarrera bezala erregistratzen da.

d) Errentamendu operatiboak-

Errentamendu operatiboaren eragiketetan, errentatzailearenak dira errentan hartutako ondasunen jabetza, eta, beraz, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak.

2021eko abenduaren 31n, Elkarteak errentamendu-kontratuak ditu soilik errentatzaile moduan.

Errentamendutik eratorritako sarrerak linealki kargatzen dira galeren eta irabazien kontuan, kontratuaren balio-bizitzaren arabera.

e) Trukeak-

Truke komertzialei dagokienez, kontuan hartzen da entregatutako aktiboaren arrazoizko balioaren bidez jasotako ibilgetu materiala gehi trukean eman diren moneta-kontrapartidak, jasotako aktiboaren arrazoizko balioaren ebidentzia argiagoa dagoenean izan ezik eta azken horren mugarekin.

Izaera komertzialeko permutatzat hartu da jasotako ibilgetuaren efektibo-fluxuen arriskua, egutegia eta zenbatekoa bat ez datozenean entregatutako aktiboaren efektibo-fluxuen konfigurazioarekin edota Elkartearen jardueren zergetan trukeak eragin eta gero efektibo-fluxuek duten egungo balioa aldatzen bada truke horren ondorioz.

Trukea komertziala ez bada edo eragiketan esku hartzen duten elementuen arrazoizko balioaren balioespen fidagarriarik lortu ezin bada, jasotako ibilgetu materiala baloratzeko kontuan hartzen da emandako ondasunaren kontabilitate-balioa gehi, hala badagokio, trukean entregatuak izandako moneta-kontrapartidak, jasotako ibilgetuaren arrazoizko balioaren mugarekin, erabiltzeko moduan dagoenean, hori txikiagoa bada.

f) Finantza-tresnak

Finantza-tresnen kapituluan, enpresa bateko finantza-aktiboa eta, aldi berean, beste enpresa bateko finantza-pasibo bat edo ondarezko tresna bat jasotzen duten kontratuak erregistratu ditu Sozietateak. Hortaz, honako finantza-tresna hauei aplikatzen zaie arau hau:

a) Finantza-aktiboak:

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.
- Merkataritza-eragiketek eragindako kredituak: askotariko bezeroak eta zordunak.

- Kredituak hirugarren batzuei: adibidez, emandako maileguak eta finantza kredituak, aktibo ez-arrunten salmentatik sorturikoak barne;
- Beste finantza-aktibo batzuk: kreditu-erakundeetako gordailuak, langileei egindako aurrerakinak eta kredituak, eratutako fidantza eta gordailuak, kobratu beharreko dibidenduak eta norbere ondare-tresnen gainean egin beharreko ordainketak.

b) Finantza-pasiboak:

- Merkataritza-eragiketek eragindako zorrak: askotariko hornitzaileak eta hartzekodunak.
- Kreditu erakundeekiko zorrak;
- Beste finantza-pasibo batzuk: hirugarrenetikiko zorrak –adibidez, kreditu-erakundeak ez diren pertsona edo enpresengandik jasotako mailegu eta finantza-kredituak, aktibo ez-korronteak erostean sortutakoak barne–, jasotako fidantza eta gordailuak eta hirugarrenetik partaidetzen gain eskatutako ordainketak.

- c) Ondare propioetako tresnak: funts propioetan jasotzen diren finantza-tresnak; besteak beste, jaulkitako akzio arruntak edo kapital sozialaren partaidetzak.

Finantza-aktiboak:

Sailkapena eta balorazioa

Sozietatearen finantza-aktiboak kategoria hauetakoak dira:

Kostu amortizatuko finantza-aktiboak: finantza-aktibo bat kategoria horretan jasotzen da –baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere–, baldin eta enpresak inbertsioa mantentzen badu, kontratua betetzeak eragindako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek diru-fluxuak eragiten badituzte, zehaztutako datetan, soilik printzipalarekiko kobrantzak eta ordaintzeke dagoen printzipalarekiko interesak direnean. Soilik printzipalarekiko kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalarekiko interesak diren kontratuzko diru-fluxuak mailegu arrunt baten izaera duen hitzarmen bati lotuta daude, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes-tasan edo merkatuko interes-tasaren azpitik adosteko aukera. Oro har, kategoria horretan jasotzen dira merkataritza-eragiketek eragindako kredituak (enpresak kobrantza atzeratu bidez egindako eragiketengatik egindako ondasun-salmenta eta zerbitzu-prestazioetan sortutako finantza-aktiboak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketek eragindako kredituak, zeintzuk, ondare-tresnak edo eratorriak ez izanik, ez baitute merkataritzako jatorririk eta, zeintzuen bidez, zehaztuta dauden edo zehazgarriak diren zenbatekoak kobratzen baitira, enpresak emandako mailegu

donostia sustapena fomento sansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

edo kredituen ondorioz. Hortaz, kategoria horretan egongo lirateke kobratu beharreko maileguak eta kontuak, zorraren balio adierazgarriak –muga-egun zehatza dutenak–, zehaztatuta dagoen edo zehazgarria den zenbatekoa duten kobrantzak (merkatu aktibo batean negoziatzen direnak eta Sozietateak muga-egunera arte mantendu nahi eta ahal dituenak).

- Hasierako balorazioa: Lehenik eta behin, arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira, zuzenean egozgarriak diren transakzio-kostuak gehituta. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketak eta, halaber, langileen kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean eskatutako ordainketak –zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero denean– horien balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzeak ondorio nabarmenik ez badu.

- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuaren arabera egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa eraginkorren metodoa aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epemuga duten eta, aurreko atalaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen diren kredituen kasuan, zenbateko horren arabera baloratuko dira ondoren ere, baldin eta ez badira narriatu.

Finantza-aktibo baten kontratuzko diru-fluxuak igorlearen finantza-zailtasunen ondorioz aldatzen direnean, enpresak aztertuko du ea egokia den galera bat kontabilizatzea balio-narriaduragatik.

- Narriadura: Narriadurak erregistratzeko, kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistroaren arabera dagoen kontabilitate-balioaren arteko aldea hartzen du kontuan Sozietateak.

Ekitaldiaren amaieran –gutxienez–, beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta objektiboki esan badaiteke kategoria horretan jasotako finantza-aktibo bat edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten finantza-aktiboen talde bat narriatu egin dela hasierako balorazioaren ondorioz izandako gertakari batengatik edo batzuegatik, eta, horren eraginez, murriztu edo atzeratu egin badira etorkizunerako zenbatetsitako diru-fluxuak, zordunaren kaudimengabeziaren eraginez.

Finantza-aktibo horiek narriatzeagatik sortutako galera kalkulatzeko, etorkizuneko diru-fluxuen kontabilitate-balioaren eta egungo balioaren arteko aldea kalkulatu da (berme erreal edo pertsonalak egikaritzean ustez sortuko diren fluxuak barne, hasierako balorazioaren ulean kalkulaturako interes-tasa eraginkorra kenduta).

Narriadurak eragindako balio-zuzenketak eta lehengoratzekak –galera horren zenbatekoa murriztu egiten denean ondorengo gertakari batengatik– gastu edo sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Lehengoratzeko datan aitortutako kontabilitate-balioa izango litzateke narriadura lehengoratzeko muga, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez bada.

Finantza-aktiboen birsailkapena

Enpresak diru-fluxuak sortzeko helburuarekin bere finantza-aktiboak kudeatzeko duen modua aldatzean, eragindako aktibo guztiak birsailkatu beharko ditu, arau honetan aurretiaz adierazitako irizpideen arabera. Kategoriatik birsailkatzea ez da hartzen balantzeko baja gisa, baizik eta balorazio-irizpidearen aldaketa gisa.

Birsailkapen hauek egin daitezke:

- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboetan birsailkatzea, eta alderantziz.
- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak ondare garbian aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboetan birsailkatzea, eta alderantziz.
- Galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboak ondare garbian aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboen kategoriatik birsailkatzea, eta alderantziz.
- Kostuaren arabera baloratutako ondare-tresnen inbertsioak galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioen finantza-aktiboen kategoriatik birsailkatzea, eta alderantziz.

Finantza-aktiboetatik jasotako interes eta dibidenduak

Erosketaren ondoren sortutako finantza-aktiboen interes eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko sarrera gisa aitortzen dira. Kostu amortizatuaren arabera baloratutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa eraginkorraren metodoarekin aitortzen dira, eta ondare-tresnetan egindako inbertsioetatik datozen dibidenduen sarrerak, berriz, Sozietateak horiek jasotzeko eskubidea sortzean aitortzen dira.

Finantza-aktiboen hasierako balorazioan, modu independentean erregistratzen dira, kontuan izanik muga-eguna, une horretan sortu diren eta

donostia sustapena fomento sansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

epea gainditua ez duten interes esplizituen zenbatekoa eta erosketaren unean organo eskudunak hitzartutako dibidenduen zenbatekoa.

Halaber, banatutako dibidenduak erosketa-dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz –zalantzarik gabe– edo erosketaz geroztik partaidetzapeko enpresak sortutako irabaziak baino zenbateko handiagoak banatu badira, ez dira sarrera gisa aitortzen, eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Partaidetzapeko enpresak etekinak sortu dituen ebazteko, erosketaren dataz geroztik banakako galdu-irabazien kontuan kontabilizatutako etekinak bakarrik hartzen dira kontuan, baldin eta, zalantzarik gabe, etekin horien kargurako banaketa inbertsioaren berreskurapen gisa hartu behar ez bada, dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

Finantza-aktiboen baja:

Sozietateak bajan ematen ditu finantza-aktiboak, dagokion finantza-aktiboaren diru-fluxuen gaineko eskubideak iraungi edo lagatzen direnean, eta horien jabetzari atxikitako arrisku eta etekinak substantzialki besterentzean. Kobratu beharreko kontuen kasuan, kaudimengabezia eta berandutze arriskua besterendu bada gertatzen da hori, oro har.

Finantza-aktibo bat bajan ematean sortutako galera edo irabazia zehazteko, kontuan hartzen da transakzio-kostu egozgarriengatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko diferentzia, eta horri gehitzen zaio ondare garbian zuzenean aitortutako beste edozein zenbateko metatu. Aktibo hori kontuan izango da baja gauzatu den ekitaldiaren emaitzan.

Aldiz, Sozietateak ez du bajan ematen finantza-aktiborik, eta finantza-pasibo bat aitortzen du jasotako kontraprestazioaren pareko zenbatekoagatik, jabetzari atxikitako arrisku eta etekinak substantzialki atxikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

Eskudirua eta beste bitarteko likido baliokide batzuk.

Egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutxako eta banketxeko eskudirua, ageriko gordailuak eta hiru hilabetetik beherako epe-muga duten likidezia handiko epe laburreko inbertsioak, kutxan azkar egin daitezkeenak eta balio-aldaetako arriskurik ez dutenak.

Finantza-pasiboak:

Sailkapena eta balorazioa

Balorazioaren ikuspegitik, kategoria hauetako batean sailkatzen dira finantza-pasiboak:

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak: Kategoria horren barruan sailkatzen dira finantza-pasibo guztiak, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten arrazoizko balioaren arabera baloratu behar direnean salbu. Oro har, kategoria horren barruan daude merkataritza-eragiketek eragindako zorrak eta merkataritza arlokoak ez diren eragiketek eragindako zorrak.

Mailegu arrunt baten ezaugarriak dituzten partaidetzako maileguak ere kategoria horretan sartzen dira, hargatik eragotzi gabe eragiketa zero interes-tasan edo merkaturako interes-tasaren azpitik adosteko aukera.

- Hasierako balorazioa: Hasieran, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Kontrakoa adierazten duen ebidentziarik ez badago, transakzioaren prezioa izango da balio hori, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egozgarri zaizkion transakzio-kostuen arabera doituta. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epe-muga duten merkataritza-eragiketek eragindako eta kontratuzko interes-tasarik ez duten zorrak eta hirugarrenen partaidetzen gainean eskatzen dituzten eta epe laburrean egin beharreko ordainketak horien balio nominalaren arabera balora daitezke, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada esanguratsua.

- Ondorengo balorazioa: kostu amortizatuaren arabera.
- Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa eraginkorraren metodoa aplikatuz. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako epe-muga duten eta, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera baloratzen diren zorrak zenbateko horren arabera baloratuko dira aurrerantzean ere.

Finantza-pasiboen baja:

Enpresak bajan emango du finantza-pasibo bat edo haren zati bat, dagokion obligazioa iraungitzean, hau da, obligazioa bete, bertan behera geratu edo iraungi denean.

Entregatu eta jasotako fidantzak

Betebehar jakin batzuk bermatzeko eratutako mailegu edo fidantzak efektiboki ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratuko dira, baldin eta zenbateko hori dagokion arrazoizko balioaren antzekoa bada.

Errentamendu operatiboengatik edo zerbitzuen prestazioagatik entregatu edo jasotako fidantzen kasuan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea errentamendu edo zerbitzu-prestazioaren aurretiazko ordainketa edo kobrantza gisa hartzen da, zeina galdu-irabazien kontuari egozten baitzaio errentamenduak irauten duen epean edo zerbitzua eskaintzen den epean, salmenta eta zerbitzu-prestazioengatik lortutako sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatesteko orduan, gainerako epe gisa hartzen da zenbatekoa itzuli ezin den gutxieneko kontratuzko epea, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan izan gabe.

Fidantza epe laburrekoa denean, ez da beharrezkoa diru-fluxuak deskontatzea, baldin eta horien ondorioa ez bada esanguratsua.

Arrazoizko balioa

Arrazoizko balio esaten zaio transakzio bat egiteko interesa duten eta behar bezala informatuta dauden alderdien artean aktibo bat trukatzeko edo pasibo bat likidatzeko ordaindutako zenbatekoari.

Oro har, finantza-tresnak arrazoizko balioaren arabera baloratzeko orduan, Sozietateak merkatuko balio fidagarri bat hartzen du erreferentzia gisa, eta, hala, merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa da arrazoizko balio horren erreferentzia onena. Merkatu aktiborik ez duten tresnen kasuan, balorazio-eredu eta -teknikak aplikatuz lortzen da arrazoizko balioa.

Merkataritza-eragiketetan sortutako kreditu eta zorren kontabilitate-balioa haien arrazoizko baliotik hurbil dagoela ulertzen da.

g) Mozkinen gaineko zerga-

2021eko ekitaldirako Sozietateen gaineko zerga Sozietateen gaineko Zergaren inguruko, urtarrilak 17ko, 2/2014 Foru Arauaren arabera ordaindu da.

Ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko zergaren gastua kalkulatzeko, aitzat hartzen da zergen aurreko emaitza ekonomikoa, gehitua edo gutxitua, egokitzen den moduan, zerga-emaitzarekiko alde iraunkorrekin, zerga-emaitza aipatu zergaren zerga-oinarritzat hartuta.

Inbertsioengatik izaten den kenkariari dagokion zerga-onura ekitaldi bakoitzeko Sozietateen gaineko Zergaren zenbateko txikiagoa izaten da (14 Oharra).

h) Gastuak eta diru sarrerak aitortzea

Alderdi komunak

Enpresak bere jardueraren garapen arruntetik sortutako sarrerak aitortzen ditu, bezeroekin konprometitutako ondasun edo zerbitzuen kontrola besterentzen denean. Une horretan, sarrera baloratuko du enpresak, ondasun edo zerbitzu horien truke espero duen kontraprestazioa islatzen duen zenbatekoa kontuan hartuta.

Ez da aitortzen sarrerarik elementu homogeneoen edo amaitutako produktuen trukeetan, ez eta bi enpresen artean bakoitzak bere bezeroei produktua entregatzeko aurrera eramandako jarduera komertziala eraginkorragoa izateko egindako salgai-trukeetan.

Aitorpena

Enpresak kontratu batetik eratorritako sarrerak aitortzen ditu bezeroari konprometitutako ondasun edo zerbitzuen gaineko kontrola –alegia, bete beharreko obligazioak– besterentzen zaionean (edo zaion neurrian).

Ondasun edo zerbitzu (aktibo) baten kontrola aipatzean, ondare-elementu horren erabilerari buruz erabaki oro hartzeko eta gainerako etekin guztiak substantzialki lortzeko gaitasunari egiten zaio erreferentzia. Eta kontrol gisa ulertzen da, halaber, beste erakunde batzuk aktiboaren erabilerari buruz erabaki eta etekinak lortzea eragozteko gaitasuna.

Identifikatutako betebeharrak bakoitzeko (ondasunak entregatzea edo zerbitzuen prestazioa), kontratuaren hasieran, enpresak zehazten du bere gain hartutako konpromisoa denboran zehar ala une jakin batean beteko du.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik eratorritako sarrerak (oro har, zerbitzu-prestazioak edo ondasunen salmenta) aitortzeko, kontratuzko obligazioa guztiz betetzeko egindako aurrerapausoak hartzen dira kontuan, beti ere, enpresak informazio fidagarria badu aurrerapauso horiek neurtzeko.

Hartutako konpromisoa betetzen den neurrian, e berrikusi –eta, beharrezkoa bada, aldatu– egiten ditu aitortu beharreko sarreren zenbatespenak. Berrikuspen horiek egiteko beharrak ez du esan nahi eragiketa horren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ezingo denik.

Data jakin batean enpresa ez bada gai obligazio baten betetze-maila arrazoizko moduan neurtzeko (adibidez, kontratu baten hasierako etapetan),

donostia sustapena fomento sansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero arren, data horretara arte izandako kostuen zenbateko baliokidearen arabera bakarrik aitortzen dira sarrerak eta dagokien kontraprestazioa.

Une jakin batean betetzen diren kontratuzko obligazioen kasuan, data horretan aitortzen dira kontratua betetzetik eratorritako sarrerak. Inguruabar hori betetzen ez den bitartean, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoizteko edo fabrikatzeko gastuak izakin gisa kontabilizatzen dira.

Aurrez salmenta edo zerbitzu-prestaziogatik sarrera gisa aitortutako kreditu-eskubideen kobrantzari buruz zalantzak daudenean, narriadurak eragindako galera balio-zuzenketagatik gastu gisa erregistratuko da, eta ez sarrera txikiago gisa.

Horri dagokionez, CIGAHOTELS ESPAÑA S.A. y ARANZAZU-DONOSTIA, S.A. enpresekin eginiko kontratuetan jasotako obligazioak gauzatzetik etorritako diru sarrerak eta hiriaren garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko hainbat erakunderekin eginiko akordioak zerbitzua emateko edo ondasunak entregatzeko unean aitortzen dira.

Bestalde, bai sozietatearen jabetzako eraikinetan espazioak alokatzetik etorritako diru sarrerak, bai alokairu kontratuan espazio horiek erabiltzetik etorritako gastua obligazio bakar gisa zehazten dira, espazio horiek hirugarren batzuen esku jartzea kontratuetan ezarritako prezio baten ordainetan, beraz, ematen diren zerbitzuak denboran barrena banatzen dira.

Balorazioa

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuen prestaziotik lortutako sarrera arruntak diruzko zenbatekoaren arabera edo, hala dagokionean, kontrapartidaren –jasotakoa edo jasotzea espero dena– arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, zeina, kontrako ebidentziarik ezean, bezeroari besterendu beharreko aktiboetarako adosturiko prezioa baita, honako hauek kenduta: enpresak egindako edozein deskonturen zenbatekoa, prezioaren beherapena edo antzekoak, eta kredituen nominalari atxikitako interesak. Hala eta guztiz ere, urte betetik beherako mugaeguna duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten kreditu komertzialei atxikitako interesak jaso ahal izango dira, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada esanguratsua.

Ez dira sarrera gisa hartzen ondasunak entregatzeko eta zerbitzuak emateko eragiketak kargatzen dituzten eta enpresak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien zergak (adibidez, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak), ez eta hirugarrenen kontura jasotako kopuruak ere.

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Sarreraren balorazioa egitean, kontraprestazio aldakorren zenbatespenik onena hartzen du kontuan enpresak, baldin eta ez bada espero aitortutako sarreraren zenbatekoa modu esanguratsuan lehengoratuko denik, aurrerago, kontraprestazio horri lotutako zalantza ebazten denean.

i) Hornidurak eta kontingentziak-

Egoera-balantzearen egunean dauden betebeharrak, aurreko gertaeren ondorioz sortutakoak eta Elkartearentzat ondare-kalteak izan daitezkeenak, horien zenbatekoa eta baliogabete-unea zehaztugabeak izanik, egoera-balantzean hornidura bezala erregistratzen dira, betebeharra baliogabetezko Elkarteari ziurrenik ordaindu beharko duen zenbatekoaren egungo balioarekin.

Betebeharra likidatzeko unean hirugarren batetik jaso beharreko ordainak ez du zorraren zenbatekoa gutxiagotzen, Elkarteari aktiboan kobratzeko dagokion eskubidea aitortzeari utzi gabe eta betiere ordainketa hori egingo dela zalantzarik izan gabe, eta aktibo hori kontabilitatean erregistraturiko betebeharraren zenbateko txikiagoarekin erregistratzen da.

j) Ingurumen-izaerako ondare-elementuak-

Jarduera garatzerakoan, sistemetan, ekipoetan eta instalazioetan ingurumen-inpaktuak txikiagotzeko eta/edo ingurumena babesteko eta hobetzeko egindako kostuak ibilgetuko inbertsio bezala erregistratzen dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten gainerako gastuak, aurrekoen berdinak ez direnak, ekitaldiko gastutzat hartzen dira. Sor daitezkeen ingurumen-hornidurak kalkulatzeko, ezagutzen diren unean sortzapenaren balioespenik onena kontuan hartzen da, eragindako kalteak aseguru-polizek estaliko ez dituztela uste denean.

Administratzaileek berretsi dute ondarearen, finantza-egoeraren eta horren emaitzen inguruan esanguratsuak izan daitezkeen ingurumen-arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik edota kontingentziarik ez duela Sozietateak.

k) Langileen gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak

Definitutako prestazioaren ordainsarien kasuan, egin beharreko ekarpenek langileentzako epe luzerako ordainsarien bidezko pasiboa sortzen dute, ekitaldiaren amaieran ordaindu gabeko eta sortutako ekarpenak ageri badira.

donostia sustapena fomento sansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Langileentzako epe luzerako ordainsarien bidezko hornidura bezala aitortzen den zenbatekoa konprometitutako ordainsarien egungo balioaren eta konpromisoei atxikitako aldi baterako aktiboen arrazoizko balioaren arteko aldea da; betebeharrak konpromiso horiekin likidatuko dira.

Lan-arloan indarrean den araudiaren arabera, Sozietateak kalte-ordaina ordaindu behar die langileei, baldintza zehatzak medio, laneko harremanak deuseztatutako kasuan.

Enplegua ezohiko moduan amaitzeko aurreikus daitezkeen inolako premiarik ez dagoenez, eta erretiratzeko diren edo zerbitzuak boluntarioki uzten dituzten langileek kalte-ordainak jasotzen ez dituztenez, kalte-ordainen bidezko ordainketak, sortzen badira, gastuetan jasotzen dira irazpena egiteko erabakia hartzen den unean.

l) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak-

Kapitalaren diru-laguntza ez itzulgarriak emandako zenbatekoarekin baloratzen dira, hasiera batean ondare garbira zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa aitortuta, eta emaitzei egozten zaizkie, diru-laguntza horiekin finantzatzeko aktiboek denboraldian izandako balio-galeraren proportzioan, balioa ez galtzeko aktiboak direnean izan ezik, eta, kasu horretan, horien inbentarioan besterentzea edo baja gertatutako ekitaldiko emaitzara egotziko dira (13. Oharra).

Diru-laguntza ez itzulgarrien izaera duten bitartean, epe luzerako zorra bezala kontabilizatzen dira, eta diru-laguntza bilaka daitezke.

Diru-laguntzak gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, diru-sarrera bezala egotziko dira finantzatzen ari diren gastuak sortutako ekitaldian.

m) Parte hartzen duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Talde bereko enpresen artean eragiketak egonez gero, lotura-maila kontuan hartu gabe, arau orokorren arabera kontabilizatzen dira. Transakzioen xedeko elementuak hasierako unean kontabilizatuko dira arrazoizko balioarekin. Ondorengo balorazioa dagozkien kontuetarako arau partikularretan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

Baloratzeko arau horrek urteko kontuak egiteko Kontabilitateko Plan Orokorreko 13. Arauan esplizitatzen diren loturadun aldeei eragiten die. Ildo horretan:

- a) Enpresa bat taldekoa dela esango da biek kontrol-harreman zuzena edo zeharkakoa baldin badute, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan aurreikusitakoaren antzekoa, edo enpresak pertsona juridiko batek edo gehiagok edozein bidez kontrolatzen dituztenean, elkarrekin lan eginez edo zuzendaritza bakarra izanaz estatutuaren arabera akordio edo klausulen bidez.
- b) Enpresa bat elkartzat hartuko da, aurrean adierazitako moduan taldeko enpresa bat izan gabe, enpresak edo pertsona fisiko nagusiek enpresa elkartzaren gainean eragin esanguratsua dutenean, urteko kontuak egiteko 13. Arauan xehe-xehe garatzen den moduan.
- c) Alde bat bestearekin lotuta dagoela esaten da horietako batek, zuzenean edo zeharka edo akziodunen edo partaideen arteko itunen edo akordioaren arabera, bestearen gaineko kontrola hartzen duenean edo eragin esanguratsua duenean bestearen finantza-arloko eta ustiapeneko erabakiak hartzerakoan, urteko kontuak egiteko 15. Arauan xehe-xehe zehazten den moduan.

Elkartearekin loturadun alderditzat hartzen dira, taldeko enpresez gain (enpresa elkartzak eta talde anitzekoak) honako hauek: Elkartearen edo haren menderatzailearen boto-eskubideetan parte-hartzeren bat zuzenean edo zeharka duten pertsona fisikoak, bataren edo bestearen gainean eragin esanguratsua izateko moduan; haien gertuko senitartekoak; Elkarteak edo haren menderatzaileko langile giltzarriak (enpresaren jardueren plangintzan, zuzendaritzan eta kontrolean, zuzenean edo zeharka, agintea eta erantzukizuna duten pertsona fisikoak), tartean Administrazioaileak eta zuzendaritza-karguak, haien gertuko senitartekoekin batera; eta beste erakunde batzuk, aurrean aipatutako pertsonen horietan eragin esanguratsua baldin badute.

Halaber, loturadun alderditzat hartzen dira Elkartearekin kontseilariren edo zuzendariren bat partekatzen duten enpresak, horrek bien finantza eta ustiapen arloko politiketan eragin esanguratsua ez badu, eta, horren lekuan, Administrazioailearen (pertsona fisikoak) edo Sozietatearen (pertsona juridikoak) ordezkariaren hurbileko senitartekoak.

Urteko kontuak aurkezteko helburuetarako, taldeko enpresatzat hartzen da Donostiako Udala, Anoeta Kiroldetgia, Balneario La Perla del Oceano, SM Elkartea eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa (8 eta 15 Oharrak).

n) Berotegi-efektuko gasak botatzeko eskubideak-

Eskubide horiek eskurapen-prezioaren arabera aitortzen dira. Kontraprestaziorik gabe edo merkatuko balioa baino baxuagoa den zenbatekoaren truke eskuratutako eskubideak badira, ondare garbira zuzenean egotzitako diru-sarrera bezala aitortzen da, dagokion ekitaldi naturaleko hasieran, eta galeren eta irabazien kontuan sartzen da, kontraprestaziorik gabe eskuratutako eskubideekin lotutako emisioen bidezko gastuetara egozten doazen heinean.

Emisio-eskubideak ez dira amortizatzen, eta, narriadura dela-eta, baloratzeko beharrezko zuzenketak bete behar dituzte.

Berotegi-efektuko gastuak gertatzen direnean, ekitaldiko galeren eta irabazien kontuan gastu bat eta dagokion hornidura aitortu behar dira, balitekeelako ixteko egunean zenbateko zehatza zein den ez jakitea. Hornidura, dagozkion eskubideak entregatuta, betebeharra baliogabetzen den unera bitarte mantendu behar da.

(5) Ibilgetu ukiezina

Hauek dira 2020ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar ibilgetu honen kontu ezberdinetan izandako mugimenduak:

- Eurotan

Mugimenduak	Informatika-aplikazioak	Guztira
A) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoa Intsuldaketak	131.175	131.175
B) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoa	131.175	131.175
C) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	131.175	131.175
D) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	131.175	131.175
E) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	49.559	49.559
Ekitaldiko zuzkidura	37.169	37.169
F) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	86.728	86.728
G) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	86.728	86.728
Ekitaldiko zuzkidura	37.169	37.169
H) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	123.897	123.897
2021eko ekitaldiko amaierako garbia	7.278	7.278

(6) Ibilgetu materiala

Hauek dira 2020ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar ibilgetu honen kontu ezberdinetan izandako mugimenduak:

- Eurotan -				
Mugimenduak	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk	Uneko ibilgetua eta aurrerakinak	Guztira
A) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoa	2.552.732	8.619.995	12.473	11.185.200
Gehikuntzak	-	-	62.946	62.946
Intsuldaketak	-	134.436	(134.436)	-
B) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoa	2.552.732	8.754.431	13.966	11.321.129
C) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	2.552.732	8.754.431	13.966	11.321.129
Gehikuntzak	-	39.822	-	39.822
Intsuldaketak	-	(6.000)	6.000	-
D) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	2.552.732	8.788.253	19.966	11360.950
E) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	507.543	6.839.187	-	7.346.730
Ekitaldiko zuzkidura	111.693	249.536	-	361.229
F) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	619.236	7.088.723	-	7.707.959
G) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	619.236	7.088.723	-	7.707.959
Ekitaldiko zuzkidura	111.693	246.874	-	358.567
H) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	730.929	7.335.597	-	8.066.526
2021eko ekitaldiko amaierako garbia	1.821.803	1.452.656	19.966	3.294.425

2021eko abenduaren 31n, badira ibilgetu materialean guztiz amortizatutako elementuak, eta horien kontabilitateko kostua 6.438.049 eurokoa da.

(7) Ondasun higiezinak inbertsioak

Hauek dira 2020ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan zehar ibilgetu honen kontu ezberdinetan izandako mugimenduak:

- Eurotan -

Mugimenduak	Lursailak eta eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk	Guztira
A) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoa	34.195.834	1.047.461	35.243.295
B) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoa	34.195.834	1.047.461	35.243.295
C) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	34.195.834	1.047.461	35.243.295
D) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	34.195.834	1.047.461	35.243.295
E) 2020ko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	13.845.101	1.047.461	14.892.562
Ekitaldiko zuzkidura	829.247	-	829.247
F) 2020ko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	14.674.348	1.047.461	15.721.809
G) 2021eko ekitaldiko hasierako saldoan pilatutako amortizazioa	14.674.348	1.047.461	15.721.809
Ekitaldiko zuzkidura	829.247	-	829.247
H) 2021eko ekitaldiko amaierako saldoan pilatutako amortizazioa	15.503.595	1.047.461	16.551.056
2021eko ekitaldiko amaierako garbia	18.692.239	-	18.692.239

Sozietateak, 1988ko abenduaren 23ko kontratuaren arabera, CIGAHOTELS ESPAÑA, SAr eman zion Maria Cristina hotelaren usufruktua izateko eskubide erreala, 30 urteko denboraldirako, 1989ko urtarrilaren 1etik kontatzen hasita, eta guztira 9.015.181,56 euroren truke.

Modu horretan, emateko unean eta gainbalio garbiaren izenean, 3.608.476,67 euro erregistratu ziren; izan ere, aholkulari fiskalak emandako irizpenaren arabera eta zerga batzuekin duen analogia ikusita, enpresari emandako usufruktuaren eskubidearen kostua kontratu-egunean usufruktuan emandako elementuen kontabilitate-balio garbiaren %2koa izan zen; hots, 5.406.704,89 eurokoa.

Kostu hori 1988ko abenduren 31ko egoera-balantzeko "Usufruktua ematea, balio-galeraren hornidura" epigrafean kontabilizatu zen, eta, geroztik eta 2018ko ekitaldira bitarte, Sozietatea hori itzultzen aritu da.

1990 eta 1996 urteetan, Sozietateak ibilgetuen balioak eguneratu zituen ekitaldi horietako bakoitzean indarrean zegoen foru-araudiaren arabera, eta, horrela, besteak beste, usufruktuan emandako balioen eta, ondorioz, horniduraren igoera gertatu zen; beraz, 1996. urteaz geroztik, itzultze horren urteko zenbatekoa 244.065,01 eurokoa da.

2011 eta 2012 ekitaldietan zehar, CIGAHOTELS ESPAÑA, SAr, Maria Cristina Hotelaren gaineko usufruktu-eskubidearen lagapen-hartzaileak, garrantzi handiko obra egin zuen bertan, eta, denbora horretan zehar, Sozietateak guztira 4.715.000 euro jartzeko konpromisoa hartu zuen aipatu obra finantzatze aldera, 2011ko uztailaren 28an sinatutako kontratuaren arabera.

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Aipatutako kontratuaren xedapenekin bat eginez, Sozietateak emandako eta eskudirutan ordaintzen ez den finantzazio zatia ondoz ondoko ekitalditan kanon kontzeptuan egingo diren likidazioekin konpentsatuz joango da. Lanaren amaierako likidazioaren ondoren, zati hau, azkenean, 3.250.000 eurotan izan zen. 2016. ekitaldian CIGAHOTELS ESPAÑA, S.A. enpresarekin sortutako zorra guztiz konpentsatu zen.

Usufrukturako benetako eskubidearen aipatutako lagapena iraungi da 2018ko abenduaren 31n, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, María Cristina Hoteleko negozio alokairua CIGAHOTELS ESPAÑA, S.A. enpresari hitzartu zitzaion 2038ko abenduaren 31ra arte.

2021eko abenduaren 31n, badira higiezinetakoinbertsioan guztiz amortizatutako elementuak, eta horien kontabilitateko kostua 1.047.461 eurokoa da.

(8) Finantza-aktiboak

a) Finantza-aktiboen sailkapena kategorien arabera-

Hona hemen finantza-aktiboen sailkapena kategorien eta moten arabera abenduaren 31n -taldeko, taldeaniztuneko eta elkartutako enpresen ondarean egindako inbertsioak salbu, eta eskudiru eta bestelako aktibo likido baliokideak kontuan izan gabe-, eta arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko alderaketa:

DESKRIBAPENA	2021.12.01		2021.01.01	
	Ez-arrunta	Arrunta	Ez-arrunta	Arrunta
Finantza aktiboak kostu amortizatuan:				
Kredituak	7.781	-	13.726	-
Hainbat zordun	-	3.441.016	-	2.043.243
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak	-	3.954.554	-	3.112.742

Kreditu ez-arrunten epigrafean sartzen dira epe luzera emandako fidantzak alokairu kontratuen berme gisa, funtsean, eta Sozietateko langileei mailegaturiko kredituak.

b) Galera eta irabazi garbiak finantza aktiboen kategorien arabera

2021eko eta 2020ko ekitaldietan ez da izan finantza aktiboen kategoria desberdinetatik etorritako galera edo irabazi garbi esanguratsurik, edo interes efektiboaren metodoa aplikatuzetik kalkulaturiko finantzen diru sarrera esanguratsurik.

c) Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak

Balantzearen epigrafe honek jasotzen ditu, funtsean, kontabilitatea ixten den egunean kobratu beharreko zenbatekoak, Sozietateak eginiko hainbat zerbitzu ematetik eratorriak.

Kredituak, deribatuak eta beste batzuk kategorian sartzen den saldoa, funtsean, inongo interes tasarik sortzen ez duten eta nominalean baloratzen diren zordunei dagokio. (Administrazio Publikoekiko zorrak ez dira islatzen atal honetan). Hau da 2021eko abenduaren 31n:

-Eurotan-

Kontzeptua	Zenbatekoa 2021/12/31	Zenbatekoa 2020/12/31
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak	846	846
Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartutako enpresak	3.953.708	3.111.896
Kobrantza zalantzagarriko bezeroak	274.331	274.331
Hainbat zordun	3.441.016	2.043.243
Kredituen balioaren narriadura	(274.331)	(274.331)
Guztira	7.395.570	5.155.985

(9) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, egoera-balantzeetako epigrafeko saldoak honako hauek osatzen dituzte:

-Eurotan-

Kontzeptua	2021	2020
Kutxa	1.693	1.755
Ageriko kontu korronteak	1.109.557	929.095
Guztira	1.111.250	930.850

(10) Finantza-pasiboak

a) Finantza pasiboen sailkapena kategorien arabera

Hau da finantza pasiboen sailkapena kategorien eta moten arabera abenduaren 31n:

DESKRIBAPENA	2021.12.01		2021.01.01	
	Ez-arrunta	Arrunta	Ez-arrunta	Arrunta
Finantza pasiboak kostu amortizatuan:				
Zorrak	522.830	376.811	516.677	375.741
Hainbat hartzekodun	-	8.491.095	-	7.567.512
Ordaindu beharreko ordainsariak	-	13.018	-	13.274

b) Galera eta irabazi garbiak finantza pasiboen kategorien arabera

2021eko eta 2020ko ekitaldietan ez da izan finantza pasiboen kategoria desberdinetatik etorritako galera edo irabazi garbi esanguratsurik, edo interes efektiboaren metodoa aplikatuzetik kalkulaturiko finantza gasturik.

c) Hartzekodun Komertzialak eta Ordaintzeko Bestelako Kontuak

Balantzeko pasibo arruntaren finantza tresnak, kategorien arabera sailkatuta, zenbateko hauek ematen dituzte (Administrazio Publikoekiko kredituak ez dira islatzen atal honetan) 2021eko abenduaren 31n:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	Zenbatekoa 2021/12/31	Zenbatekoa 2020/12/31
Hainbat hartzekodun	5.909.828	4.273.045
Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak)	13.018	13.274
Bezeroen aurrerakinak	2.581.267	3.294.467
Guztira	8.504.113	7.580.786

(11) Epe luzerako eta epe laburrerako periodokatzeak-

Gehitutako egoera-balantzeko epigrafe hauetan honako mugimendu hauek agertzen dira 2020ko eta 2021eko ekitaldietan zehar:

-Eurotan-		
Mugimenduak	Periodokatzeak epe laburrera	Periodokatzeak epe luzera
2020ko ekitaldiko hasierako saldoa	1.532.685	753.836
Gehikuntzak	562.165	74.570
Erretiroak	(1.209.521)	(1.869)
Intsuldaketak	110.735	(110.735)
2020ko ekitaldiko amaierako saldoa	996.064	715.802
2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	996.064	715.802
Gehikuntzak	566.911	649.518
Erretiroak	(684.832)	
Intsuldaketak	111.592	(111.592)
2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	989.735	1.253.728

Hona hemen 2021eko ekitaldiko mugimenduen xehetasuna:

-Eurotan-					
Mugimenduak	Hasierako saldoa	Gehikuntzak	Erretiroak	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Periodokatzeak epe luzera					
Emaus	195.803	16.976	-	(15.109)	197.670
GIT	334.220	5.542	-	(26.816)	312.946
District Heating	185.779	627.000	-	(69.667)	743.112
Guztira, epe luzera	715.802	649.518570	-	(111.592)	1.253.728
Periodokatzeak epe laburrera					
Emaus	15.109	-	(15.109)	15.109	15.109
GIT	25.959	-	(25.959)	26.816	26.816
District Heating	69.667	-	(69.667)	69.667	69.667
Diru-laguntzak	885.329	566.911	(574.097)	-	878.143
Guztira, epe laburrera	996.064	566.911	(684.832)	111.592	989.735

2000. urteko abenduaren 31n, Sozietateak 1.432.122 euro zituen erregistratuta, ordura arte Ciga Hoteles-ekin indarrean zegoen kontratuko kobrantza aurreratuei zegozkienak (1. Oharra). Ekitaldi horretan kontratua aldatu ondoren, zenbateko hori gozamen-denboraldikoa baino prezio handiagokotzat hartu zen, eta linealki aplikatu zen gozamenaren gainerako denboraldian. 2019ko ekitaldiaren amaieran, ez dago ordaintzeko zenbatekorik kobrantza aurreratuko kontzeptuaren izenean.

2006. urteko urtarrilaren 27an, Sozietateak kontratua sinatu zuen Emaus Fundazio Sozialarekin, Belartzan lokala alokatzeko 30 urterako. Aipatu errentariak kontratua indarrean den bitartean ordaindu beharreko guztiaren errenta ordaindu zuen adierazitako egun horretan; hau da, 455.269 euro. Kopuru hori aipatutako denboraldian zehar emaitzara pasako da.

Emaus Fundazio Sozialarekin egindako kontratua elkarrekin adostuta indargabetu da, eta 2017ko martxoaren lehen, beste kontratu bat sinatu da Emaus Sozietate Kooperatiboarekin. Kontratua 18 urtekoa eta 11 hilabetekoa izango da, 2036ko otsailaren 1era bitartekoa, eta 285.808 euroko errenta izango du; horietatik 150.000 euro (gehi BEZa) sinatutako unean ordaindu dira eta gainerako 135.808 euro (gehi BEZa) elkarren segidako 48 hilabetetan ordainduko dira, 2017ko maiatzaren hasita. Aurreratutako diru-sarrerak emaitzara egotziko dira linealki kontratuak irauten duen denboraldian zehar.

2012ko ekitaldian, Elkartek akordioak sinatu zituen Vodafone España SAUrekin eta Instal-Matel SMrekin, Donostiako komunikazio elektronikoen sare publiko finkearen azpiegiturak alokatzeko. Akordio horietan 95.787 eta 10.048 euroko zenbatekoak agertzen dira, hurrenez hurren, 20 urteko denboraldirako lehenengoarekin eta 10 urterako bigarrenarekin. Halaber, urte horretan bertan, Ikerbasque-rekin akordio bat sinatu zen Donostian komunikazio elektronikoen azpiegiturak garatzeko eta erabiltzeko; beraz, aipatu erakundeak 34.617 euroko ekarpena egiten zuen 15 urteko eperako. Zenbatekoak emaitzara egotziko dira aipatu denboraldietan zehar. Gehigarri gisa, 2015. ekitaldian, Vodafone España, SAUrekin sinaturiko akordioaren A eranskinari gehitutako Addendum-a sinatu da. Horren bitartez, zuntz optikoko zati berriak sartu dira 344.103 euroren truke, 20 urteko denboraldirako. Zenbatekoa 2016tik aurrerako emaitzari egotzi zaio. Zenbatekoak emaitzari linealki egotziko zaizkio aipatutako denboraldi horietan zehar.

Azkenik, 2019ko ekitaldian, Addendum berri bat sinatu zen Vodafone España, S.A.U. enpresarekin sinaturiko akordioaren A eranskinari gehitzeko, eta, haren bidez, 46.277 euro sartu ziren 15 urteko eperako. Zenbateko hori emaitzari egotzen zaio 2020tik aurrera. Zenbateko horiek linealki egotziko zaizkio emaitzari aipaturiko aldietan barrena.

2017an, sozietateak hitzarmen bat sinatu zuen Txomin Enea ABEEarekin, instalazio termikoak barnean hartuko dituen eraikinaren obra zibila egiteko, aipatutako sistema abian jarri eta ustiatzeko, eta azpiegituraren mantentze lanak egin eta berme osoa emateko. Sinatutako hitzarmenak 15 urteko indarraldia du, eta 2018ko abuztuan jarri zen indarrean. Adostutako prezioa 1.045.000 eurokoa izan zen, hiru mugaegunetan kobratzeko:

- Hasierako % 40 (418.000 euro) 2018ko ekainaren 30ean, baldin eta Sustapenak ordurako azpiegitura jaso badu (2018ko abuztuan jaso zuen).
- Ondoren, % 45 (470.250 euro), 2020ko ekainaren 30ean.
- Eta gainerako % 15a (156.750 euro), 2021eko ekainaren 30ean.

Azkenik, aurreko koadroko "Diru-laguntzak" epigrafean jasotako zenbatekoa erakunde ofizial ezberdinek emandako diru-laguntzei dagokie, eta,

2021eko abenduaren 31n Sozietatearen erregistroetan kontabilizatuta badaude ere, etorkizuneko ekitaldietan jaso behar dira azken horietan sortzeagatik.

(12) Funts propioak

Kapital soziala-

2021. urteko abenduaren 31n, kapital soziala 639.235 akzio nominalek osatzen dute, denak mota eta serie berekoak eta bakoitza 15,025302 euro nominalekoa. Denek 1etik 639.235era bitarteko zenbakia dute, biak barne. Gainera, Donostiako Udalak harpidetuta eta ordainduta daude.

Legezko erreserba-

Kapital Sozietateen Legeari jarraiki, ekitaldiko mozkinaren %10a legezko erreserbarako gorde behar da, harik eta erreserba hori kapital sozialaren gutxienez %20a izatera iritsi arte.

Legezko erreserba erabili ahal izango da kapitala gehitzeko dagoeneko gehitutako kapitalaren %10 gainditzen duen saldoaren zatian.

Aurrean aipatutako helbururako izan ezik, eta kapital sozialaren %20a gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori soilik erabili ahal izango da galerak ordaintzeko, betiere, horretarako behar den adinako beste erreserbarik ez dagoenean.

Errebalorizazio-erreserba-

Erreserba horiek ibilgetu materialaren balioa eguneratzeko arautzen dituen araudiaren arabera egindako eragiketen ondorio dira. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, saldoa 3.103.076 eurokoa da.

* 13/1991 Foru Arauaren eguneratzea

Zerga-ikuskapenak eguneratze hori isilbidean onartu eta gero, 1996. urteko urtarrilak 1 baino lehen ikuskatua ez den kasuan, erreserba hori ezingo da erabili, galerak konpentsatzeko edo kapitala gehitzeko erabiltzen ez bada.

* 11/1996 Foru Arauaren eguneratzea

Zerga-ikuskapenak eguneratze hori isilbidean onartu eta gero, 2001. urteko urtarrilaren 31 baino lehen ikuskatua ez den kasuan, erreserba hori ezingo da

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

erabili, kontabilitateko emaitza negatiboak kentzeko edo kapital soziala gehitzeko edo banatu ezin diren erreserbetarako erabiltzen ez bada.

Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak-

Ekitaldi honetan, aurreko ekitaldietako emaitzak konpentsatu dira, Donostiako Udalak 8.382.920 euroko ekarpena egin baitu, galerak konpentsatze aldera.

(13) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Egoera-balantzean, Ondare garbiaren epigrafe honetan 2021eko abenduaren 31n agertzen den saldoa lortzeko kontuan hartzen da hainbat Erakunde Publikok ekitaldi honetan eta aurrekoetan emandako kapitalaren diru-laguntzen eta, inbertsio-ondasunetarako amortizazioen arabera, galeren eta irabazien kontuetara transferitutako zenbateko guztien arteko aldea.

2020ko eta 2021eko abenduaren 31n, egoera-balantzeko epigrafea honako mugimendu hauek osatzen dute:

Mugimenduak	-Eurotan-
	Kapitalaren diru-laguntzak
2020ko ekitaldiko hasierako saldoa	6.233.108
Gehikuntzak	73.780
Intsuldaketak	(386.595)
2020ko ekitaldiko amaierako saldoa	5.920.293
2021eko ekitaldiko hasierako saldoa	5.920.293
Gehikuntzak	
Intsuldaketak	(383.745)
2021eko ekitaldiko amaierako saldoa	5.536.548

Intsuldaketak bat datoz ekitaldiko emaitzarako egozpenekin, eta 2020ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako galeren eta irabazien kontuetako "Ibilgetu ez finantzarioen diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk" epigrafeetan islatzen dira.

Hauek dira 2021eko ekitaldian kontabilizatutako mugimenduak, erakunde emailearen eta helburuaren arabera ordenatuta:

-Eurotan-			
Helburua eta jatorria	Hasierako saldoa	Intsuldaketak	Amaierako saldoa
Belartza - M. Herri Adm. - Eusko Jauriaritza	1.282.839	(69.973)	1.212.866
Democenter - Donostiako Udala	365.740	(16.377)	349.364
CEMEI - Donostiako Udala	366.000	(18.000)	348.000
GIT - Ikerbasque	2.255	(2.255)	-
Maria Cristina - Donostiako Udala	985.525	(58.000)	927.525
ENERTIC - Donostiako Udala	1.123.367	(41.099)	1.082.268
ETXEZURI - Donostiako Udala	346.395	(12.673)	333.722
District Heating _eraikuntzak - Donostiako Udala	507.655	(28.735)	478.920
District Heating _ ekipamendua - Donostiako Udala	669.241	(87.292)	581.949
District Heating _software - Donostiako Udala	31.903	(11.963)	19.939
District Heating _monitorizazio zuntza - Donostiako Udala	66.422	(7.378)	59.044
District Heating - EVE	57.500	(7.500)	50.000
Urban Lur	115.451	(22.500)	92.951
Guztira	5.920.293	(383.745)	5.536.548

(14) Egoera fiskala

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hau da aktibo fiskalei eta pasibo fiskalei buruzko saldoen inguruko xehetasuna:

-Eurotan-		
Kontzeptua	Zenbatekoa 2021/12/31	Zenbatekoa 2020/12/31
AKTIBOA-		
Ogasun Publikoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidezko zorduna	-	59.176
Guztira	-	59.176
PASIBOA-		
Ogasun Publikoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidezko hartzekoduna	-	-
Ogasun Publikoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidezko hartzekoduna	222.516	146.213
Gizarte Segurantzaren erakunde hartzekodunak	79.249	64.251
Guztira	301.765	210.464

Sozietateen gaineko zerga kalkulatzeko da emaitza ekonomikoaren edo kontabilitateko emaitzaren arabera, eta emaitza hori orokorrean onartutako kontabilitate-printzipioak aplikatuta lortzen da; gainera, ez dauka nahitaez emaitza fiskalarekin bat etorri beharrik. 2021. ekitaldiko kontabilitatearen emaitzak bat egiten du Sozietateen gaineko Zergaren oinarriarekin.

Kontabilitate-emaitzaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren arteko berdinkatzea ondorengo da:

Kontabilitate-emaitza	(8.819.947)
Kontabilitatez kanpoko doikuntza	8.819.947
Zerga-oinarria	-

Sozietateak azken lau ekitaldiak irekita ditu agintari fiskalek ikuska ditzaten jarduera dela-eta ordaindu beharreko zerga guztiak.

2021eko abenduaren 31n, hauek dira etorkizuneko ondasunekin ordain daitezkeen galera fiskalak:

Urtea	Milaka euro	Aplikatzeko azken urtea
2007	3.664.162	2022
2008	3.201.346	2023
Guztira	6.865.508	

Erantsitako egoera-balantzean ez da ikusten aurreko paragrafoan adierazitakoak etorkizunean izan dezakeen mozkin fiskalari dagokion zenbatekorik.

(15) Abalak eta bermeak

Kutxabank, S.A. sozietateak hainbat abal, guztira, 21.300 eurokoak, eman dizkio Sozietateari Energia eta Meategi Politiken Zuzendaritza Nagusiaren aurrean eguzki-plaka fotovoltaiakoak jartzeko. Bestalde, badago 54.080 euroko beste abal bat ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzei lotuta dagoena eta.

2020an, KutxaBank, S.A.k 17.400 euroko abala eman zion sozietateari, Hagval, S.A.ren aurrean erantzuteko.

(16) Diru-sarrerak eta gastuak

a) Eragiketak taldeko enpresekin-

2021eko eta 2020ko ekitaldietan zehar, taldeko enpresekin ondorengo eragiketak egin dira:

-Eurotan-

Eragiketak alde lotuekin 2021	Bazkideen ekarpenak	Kapitalaren diru-laguntzak	Emandako zerbitzuak
Donostiako Udala	8.819.947	-	40.282
Balneario La Perla del Océano, SM Elkartea	-	-	59.563
Anoeta Kiroldegia	-	-	5.937
Donostiako Etxegintza	-	-	73.004
GUZTIRA	8.819.947	-	178.786

Eragiketak alde lotuekin 2020	Bazkideen ekarpenak	Kapitalaren diru-laguntzak	Emandako zerbitzuak
Donostiako Udala	8.382.920	73.780	26.100
Balneario La Perla del Océano, SM Elkartea	-	-	59.802
Anoeta Kiroldegia	-	-	43.103
Donostiako Etxegintza	-	-	19.488
GUZTIRA	8.382.920	73.780	148.493

Bestalde, taldeko enpresekin ondorengo saldoak lortu dira 2021eko eta 2020ko ekitaldiak ixtean:

-Eurotan-

Entidad	2021		2020	
	Saldo hartzekoduna	Saldo hartzekoduna	Saldo hartzekoduna	Saldo zorduna
Donostiako Udala	2.581.268	3.948.714	3.294.467	3.106.877
Balneario La Perla del Océano, SM Elkartea	-	6.006	-	6.030
Anoeta Kiroldegia, SA Elkartea	-	(1.012)	-	(1.012)
Donostiako Etxegintza	-	-	-	-
GUZTIRA	2.581.268	3.953.708	3.294.467	3.111.895

Gehigarri moduan, Donostiako Udalak 2009ko ekitaldian zehar erabaki du Berme Funttsaren titulartasuna aldatzea, Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxa – Kutzaren kontuan gordailatuta dagoena, eta Sozietatearen izenean jarri du. Ekitaldia ixtean, kontuan 295.086 euroko saldoa dago, eta aktibo arruntaren “Efektiboa eta beste aktibo likido baliokideak” epigrafea eta pasibo arrunteko “Beste finantza-pasiboak” kontua gehitu dira. 2021eko abenduaren 31n, funts honek bermaturiko maileguak daude, 66.674,35 €-ko zenbatekoarekin.

b) Negozio-kopuruaren banaketa-

2021eko ekitaldian zehar, ohiko jarduerari dagokion negozio-zifraren zenbateko garbi ia osoa Gipuzkoan egin da.

2021eko abenduaren 31n, Sozietateak ondorengo gutxieneko errentamendu-kuotak ditu kontratatuta errentariekin, indarrean dauden egungo kontratuen arabera, kontuan izan gabe gastu arruntan, KPI bidezko etorkizuneko igoeren eta kontratuz adostutako errenten etorkizuneko eguneratzeen ondorioak:

-Eurotan-	
Errentamendu operatiboan Gutxieneko kuotak	Zenbatekoa
2022an	2.162.674
2023 eta 2026 artean	4.658.803
2027 ondoren	1.884.122
Guztira	8.705.600

c) Langileen gastuak, batez besteko plantila eta karga sozialak-

2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (Dekretuaren bidez, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presazko neurriak onartzen dira), Erakundeko langileen ordainsariak % 2 igo dira 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, homogeneotasunaren arabera kalkulatuta erkaketaren bi aldietarako. Era berean, 2021eko ekitaldian barrena, Erakundeko langileen ordainsariak % 0,9 igo dira 2020ko abenduaren 31n indarrean zirenekiko.

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n agertzen diren langileen batez besteko kopurua, kategoria eta sexuaren arabera banatua:

Kategoria	Gizonezkoak		Emakumeak		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Unitateko arduraduna	3	4	3	3	6	7
Langile lizentziatuak	4	4	23	21	27	25
Administrariak	-	-	16	15	16	15
Guztira	8	8	42	39	49	47

Soldatak eta karga sozialak honela banakatzen dira, eurotan:

-Eurotan-

Kontzeptua	Zenbatekoa 2020/12/31	Zenbatekoa 2019/12/31
Soldatak	2.400.120	2.324.267
Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza	670.031	666.655
Pentsio-planen ekarpenak	38.815	38.814
Bestelako gastu sozialak	13.588	21.885
Guztira	3.122.555	3.051.621

d) Bestelako informazioa-

Kontu-ikuskariak eskainitako enpresa-zerbitzuengatik 2021 eta 2020ko ekitaldietan sortutako ordainsarien zenbatekoa 7.400 eurokoa izan da bi ekitaldietan.

(17) Wifi eta GIT eremuei buruzko informazioa

Hauek dira Wifi eremuaren inguruko sarrerak eta gastuak:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	Zenbatekoa 2021/12/31	Zenbatekoa 2020/12/31
Bonoak	-	-
Udala	19.511	-
Eusko Jauriaritza	-	-
Guztira, sarrerak	19.511	-
<i>Sarematikaren mantentze-lanak</i>	21.429	27.616
<i>Telefono bidezko komunikazioak</i>	2.330	2.527
Ustiapena	23.759	30.144
Zeharkako gastuak	1.107	1.405
Amortizazioa	-	-
Guztira, gastuak	24.866	31.549
Emaitza	(5.355)	(31.549)

GIT eremuari dagokionean, hona hemen sarreren eta gastuen xehetasuna:

Kontzeptua	-Eurotan-	
	Zenbatekoa 2021/12/31	Zenbatekoa 2020/12/31
Zuntzaren erabilera uzteko aurreratutako ordainketa	6.339	46.277
Inbertsioak	39.822	62.946
Zerbitzuak ematea	38.831	14.902
Zuntzaren erabilera uzteko aurreratutako ordainketaren intsuldaketa	29.011	29.993
Guztira, sarrerak	67.842	44.895
Auditoria GIS	-	-
Mantentze-lanak	14.705	44.039
Udalaren kanona	2.256	2.061
Operadorearen tasa	-	228
Soldata eta ordainsariak	25.612	24.963
Ustiapena	42.574	71.291
Zeharkako gastuak	1.984	3.322
Amortizazioa	44.972	47.655
Guztira, gastuak	89.530	122.268
Emaizta	(21.688)	(77.373)

(18) Administrazio Organoaren ordainsariak

Sozietateko Administrazio Kontseiluko kide izateagatik ez da inolako ordainsaririk jasotzen; beraz, kontzeptu horren izenean ez da inolako gasturik egin.

Bestalde, Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideei ez zaie inolako aurrerakinik, krediturik edo abantailarik eman.

2021eko ekitaldian zehar, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute egin Sozietatearekin edo Taldeko Sozietateekin trafiko arruntekoak ez diren eragiketarik edo merkatuko baldintza ezberdinetako eragiketarik.

Administratzaileek ez dute jakinarazi inolako gatazka egoera zuzenik edo zeharkakorik dagoenik Sozietatearekin, Kapital-sozietateen Legearen 229.3 artikulua ezartzen duen bezala.

Sozietatearen Zuzendaritza Gorena Administrazio-organoari dagokio.

(19) Ingurumenari buruzko informazioa

Oro har, Elkartearen jardueren bitartez ez da ingurumenean inpaktu negatiborik sortzen; ondorioz, izan daitezkeen efektu horiek arintzeko helburua duten kostu edo inbertsio esanguratsurik ez da egin.

(20) Berotegi-efektuko gasak botatzeko eskubideei buruzko informazioa

Elkartek ez du berotegi-efektuko gasak botatzeko eskubiderik.

(21) Hornitzaileei egindako ordainketa-gerorapenei buruzko informazioa

Hona hemen eragiketa komertzialetan hornitzaileei egindako ordainketa-gerorapenen inguruko informazioa:

	2020	2021
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batz besteko epea	33	30
Ordaindutako eragiketen ratioa	37	21
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	8	13
	Zenbatekoa (eurotan)	Zenbatekoa (eurotan)
Egindako ordainketak, guztira	7.449.570	6.988.050
Ordaintzeko dauden ordainketak, guztira	1.065.959	959.550

40 orrialdeko (azkena barne) Memoria hau Administrazio Kontseiluak egin du 2022ko martxoaren 29eko bileran.

Administrazio Kontseilua:



Eneko Goia Laso jauna
Lehendakaria



Marisol Garmendia Beloqui andrea
Lehendakariordea



Nekane Mendarte Azkue andrea
Kidea




Jaione Hervás Sáez de Arregui andrea
Kidea



Cristina Lagé Manich andrea
Kidea




Haizea Garay Gallastegi andrea
Kidea



Borja Corominas Fisas jauna
Kidea



Olaia Duarte Lopez andrea
Kidea



Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Kidea

DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A. SOZIETATEA

2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI

DAGOKION KUDEAKETA-TXOSTENA

(1) Ekitaldia itxi ondoren gertatutako Sozietatearentzako garrantzitsuak diren gertaerak

Ekitaldia itxi zenetik ez da Sozietatearen urteko kontuetan eta egoera orokorrean eragin garrantzitsua izan dezakeen gertaera ekonomiko finantzariorik gertatu.

(2) Sozietatearen bilakaera aurreikusgarria

2022rako Sozietatearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenari dagokionez, ez dago faktorerik aurreko ekitaldiarekiko desberdinak diren perspektibak izan ditzakeen bilakaera bat eman daitekeela pentsarazten digunik.

(3) Jarduerak Ikerketa- eta Garapen-Arloetan

Sozietateak berrikuntza eta talentua sustatzen jarraitzen du modu seguruan, Donostia garatzeko esparru estrategiko gisa, enpresen arloan, zientzia-teknologiaren arloan, hezkuntzaren arloan eta hiri adimendunei buruzko arloan.

Hala ere, ezin dugu ahaztu 2021ean ahalegin handia egin dela Ekonomia Berpizteko Planaren inguruan, eta horrek lagundu egin duela pandemiak hiriko enpresa ehunean izan duen eragina arintzen.

Bere aldetik, Donostia garatzeko eragileetako bat da oraindik ere ikerketa, eta Donostia Sustapenak lankidetza garrantzitsua izaten jarraitzen du jarduera horretara bideraturiko ekosistemarekin, zentro teknologikoekin eta ikastegiekin dituen hitzarmenen eta programen bidez. Aldi berean, hainbat berariazko egitura ere aipa ditzakegu, adibidez, Talent House, 2011an ateak ireki zituen ikertzaileen egoitza, eta teknologia bonuak, aurrez aipaturiko hitzarmenen funtsezko osagai gisa. Bi ekimen horiek erreferentzia argia dira ikerketa zentroekin etengabe egiten den lankidetzarako.

Talent House egoitzak ikerketa zentro horietara lanera datozen pertsonen ostatu beharrak betetzen ditu, laguntza emateko eta harrera

egiteko programa osagarri batekin. Aurreko urteetan bezala, 2021ean baliabide honek ezin izan du bete hiriko eskari handia, eta, horregatik, alokairu kontratu bat gauzatu da eraiki behar den eraikin batentzat. Talent House II deituko zaio erakin horri, eta 2023rako irekitzea aurreikusten da. Erakin honek bere aurrekoaren helburu bera izango du, eta zerbitzuak zabaltu egingo dira hiriko beste ostatu behar batzuei begira, bai hiriko enpresa berritzaileentzat talentua erakartzeko, bai balio erantsi berezia duten ekintzailetza berriak erakartzeko.

Bonu teknologikoen bidez, bestalde, hiriko enpresek beren proiektu estrategikoen barruan adierazten dituzten beharrak bete nahi dira. Hala, ikerketa zentroentzat ez ezik, bonuak abagune bihurtzen dira enpresa horientzat ere, haien premietara hurbiltzen baita zentroetan sortutako jakintza.

Hiriko enpresen proiektu estrategikoentzako, oinarri teknologikoko start-up enpresentzako eta ETE-entzako laguntza programen osagarri, zenbait ekimen abiarazi dira talentu gazte nahiz eskarmentudunak haietara hurbiltzeko, talentuari etortzeko eta itzultzeko erraztasunak emanez. Ekimen horiek eta ekintzailetza –eta, batez ere, oinarri teknologiko eta berritzailea duen ekintzailetza– sustatzeko beste laguntza programak funtsezkoak dira hiriko jakintza eraldatzeko, ekoizpenari begirako berrikuntza bihurtu dadin, eta bertako BPGan duen pisua handitu dadin.

Berrikuntzaren aldeko apustu horren ondorioz ere, sozietateak Europako zenbait programetan parte hartzen du, European erreferentzia diren erakundeekin nazioarteko partzuergoak eratuz, askotan, hiriko ikerketa zentroekin lankidetzan eta haien parte hartzearekin.

Proiektu horiek, gainera, ekimen berritzaileetan jartzen dute arreta. Smart esparru deitu dezakegun horretan kokatzen dira: efizientzia energetikoa, mugikortasun jasangarria eta IKTen aplikazioa.

Hori horrela, SmartCities-en alorrean, hirian proiektuak sustatzen eta gauzatzen jarraitu du sozietateak: hala proiektu pilotuak (SmartKalea) nola auzoaren esparruko ekimenak, eta alderdi horretan bereziki erreparatu zaio Txomineko eremuari. Bertan, Smart izaerako zenbait gai landu dira eta lantzen jarraituko dira, herritarren parte hartzearekin, aurrez adierazitako hiru alorrekin lotuta. Txomin auzoaren esparruan, aipatu behar da azken hiri urteotan District Heating sistema izan dugula funtzionamenduan. Sistema horrek energia berriztagarriaren bidez hornitzen ditu berokuntza eta UBS 800 etxebizitza ingurutan. Finkaturiko etxebizitzek ere lortu dute onura, material

inguratzaila jartzeko obrak amaitu direnean energia eraginkortasuna hobetzeko helburua zuten eraikinetan.

Esperientzia horrek, eta herritarren inplikazioak, beste auzo batzuetan (kasurako, Bera Beran eta Altzan) antzeko proiektuak garatzeko elkarrekin lan egiten hastea ahalbidetu dute, gainera.

Azkenik, 2021. urte honetan, espezializazio adimendunaren udal politika gauzatzen jarraitu dugu, 3 kluster sektorialen bitartez: Smart, Nekazaritzako Elikagaiak eta Surf. Sektore horietako batzuek lotura dute sozietateak kudeatutako enpresa zentro edo eraikin batekin. Hori da Enertic eta PI@ zentroen kasua Smart sektoreari dagokionez, eta Villa Yeyette-rena nekazaritzako elikagaien sektoreari dagokionez.

(4) **Jarduerak Ingurumenaren Arloan**

2021. urtearen amaieran, Sozietateak eguzki-instalazio fotovoltaiakoak zituen sarera konektatuta 926,14 kWp-ko potentzia piko instalatuarekin.

Sozietate horrek azken urteetan sustatutako eraikin guztiek aurrezpenarekin eta energia ekoiztearekin lotutako instalazioak eta sistemak dituzte; horrela, arestian aipaturiko eguzki-instalazio fotovoltaiakoez gain; eguzki-energia termikoko, geotermikoko, biomasako, kogerazioko, minieolikozko instalazioak dituzte eta, kasu guztietan, monitorizazio energetikorako sistemekin gainera.

ENERTIC energia berriztagarrietarako eta eraginkortasun energetikorako enpresen zentroak, gainera, uren arazketa biologikorako instalazioak ditu, bai ur beltzak bai euri-urak berrerabiltzeko, eta, gainera, energiaren eskaria ahalik eta gehien murrizteko pentsatutako eraikuntza-proiektuaren diseinua du. Horrek aurrezpenarekin eta energia-ekoizpenarekin lotutako instalazioekin eta sistemekin batera, zero emisiotik hurbil dagoen eraikin bihurtzen dute.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIÁN



donostiasustapena
fomento**sansebastián**

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Administrazio-Kontseilua:

Eneko Goia Laso jauna
Lehendakaria

Marisol Garmendia Beloqui andrea
Lehendakariordea

Nekane Mendarte Azkue andrea
Kidea

Jaione Hervás Sáez de Arregui andrea
Kidea

Cristina Lagé Manich andrea
Kidea

Haizea Garay Gallastegi andrea
Kidea

Borja Corominas Fisas jauna
Kidea

Olaia Duarte Lopez andrea
Kidea

Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Kidea

AITORPEN NEGATIBOA INGURUMEN-INFORMAZIOAREN INGURUAN URTEKO KONTUETAN

SOZIETATEAREN IDENTIFIKAZIOA: DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A. SOZIETATEA.
IFZ: A20001681

Behean sinatzen dutenek, aipatu Sozietateko Administrazioaile gisa, adierazten dute Sozietatearen urteko kontuen kontabilitatean ez dagoela memorian sartu beharreko partidarik, Kontabilitateko Plan Orokorreko hirugarren zatiko adierazpenen arabera (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua).

Administrazio Kontseilua:



Eneko Goia Laso jauna
Lehendakaria



Marisol Garmendia Beloqui andrea
Lehendakariordea



Nekane Mendarte Azkue andrea
Kidea



Jaione Hervás Sáez de Arregui andrea
Kidea



Cristina Lagé Marich andrea
Kidea



Haizea Garay Gallastegi andrea
Kidea



Borja Corominas Fisas jauna
Kidea



Olaia Duarte Lopez andrea
Kidea



Markel Ormazabal Gaztañaga jauna
Kidea